



# berria

[→ Sartu](#)

SAGARDOA

## Alberto Iñurrategik zabalduko du txotx garaia

Urtarrilaren 15ean egingo dute hasierako ekitaldia, Astigarragako Gurutzeta sagardotegian.



Alberto Iñurrategi mendizalea. JON URBE / ARGAZKI PRES

### Berria

2018ko urtarrilak 2



Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, 25. aldiz egingo dute, aurten, Sagardo Berriaren Eguna, txotx garaiari hasiera emateko. Alberto Iñurrategi eskalatzailea eta mendizalea izango da aurtengo gonbidatua; hark irekiko du lehen upela Gurutzeta sagardotegian (Gipuzkoa), "gure sagardo berria" oihuaarekin. 25. urtea denez, aurreko urteetako gonbidatueta batzuk ere izango dira aurtengo ekitaldian.

Sagardotegiko ekitaldia baino lehen, Sagardoetxeko sagastian sagarrondo bat landatuko du Iñurrategik, naturaren dinamikotasuna eta berritzeko ahalmena irudikatuz. Sagardoetxean bertan egingo duten ekitaldian, uzta berria aurkeztu eta sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarrien berri emango du Zorione Etxezarraga Astigarragako alkate eta Sagardun Partzuergoko lehendakariak; harekin batera izango dira Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak.

Iaz, Eneko Atxa Larrabetzuko Azurmendi jatetxeko (Bizkaia) sukaldariak ireki zuen txotx garaia; eta 2016an, Aritz Aranburu surflariak.

Irakurle agurgarria: